

## **UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA**

### **I- KONTRATUAREN EDUKIA**

#### **1.- XEDEA.**

Prozedura ireki honen xedea da udan antolatzen diren udaleku irekiak antolatu eta kudeatzea 2019an.

2019ko udaleku irekiak uztailaren 1etik 26ra (biak barne) izango dira. Kontuan izan uztailaren 25a jai dela eta ez dela udaleku zerbitzurik eskainiko.

Zerbitzu hori zuzenduta egongo da urte naturalean zehar 3tik 12ra arteko urte betetzen dituzten haurrei, hau da, 2007-2016 urte bitartean jaiotako haurrei.

Adjudikaziorako jarraituko den prozedura arrunta izango da.

CPV: 920000000-1

#### **2.- KONTRATUAREN IRAUPENA.**

Kontratuaren iraupena urte betekoa izango da. Dena den bi aldeen adostasunarekin kontratua beste urte betez luzatu ahal izango da.

#### **3.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA**

Kontratuaren balio estimatua da 182.000 euro (gehi %10eko BEZa)

#### **4.- KONTRATUAREN PREZIOA.**

Familiek hiru edo lau asteko iraupena duten udalekuen artean aukeratu ahal izango dute.

Hiru asteko iraupena uztailaren 1etik 19ra izango da.

Lau asteko iraupena aldiz uztailaren 1etik 26ra (uztailaren 25a jai eguna dela kontuan izanda).

2018ko udalekuetako datuak kontuan izanik, udaleku irekietako lehen hiru asteetan 508 umek parte hartuko dutela aurreikusten da, eta laugarren astean aldiz, 288 umek. Kopuru hauek mantentzen badira, udalekuetako prezioa 91.000 eurokoa gehi %10eko BEZa izango da. Parte hartzen duen ume kopurua aldatzen bada (ume gehiago edo gutxiago), prezioa kalkulatzeko hiruko erregela aplikatuko da.

Prezio horretan sartuta daude zerbitzua aurrera eramateko sortzen diren gastu guztiak (beharrezkoa den pertsonalaren soldatak, Gizarte Segurantzako kotizazioak, administrazio kostuak, langileen dietak, inbentariagarria ez den materiala..., hau da, udalak bere gain plegu honetan espresuki hartzen ez dituen gastu guztiak).

Prezio hori beherantz hobetu ahal izango da.

Kontratua luzatuko balitz 2020an ere Udalak erabaki ahal izango du gehienez parte hartu dezakeen ume kopurua aldatzea, baita udaleku irekien egun kopurua aldatzea ere, eta kasu hauetan ere prezioa hiruko erregela aplikatuta egokituko da.

Ez da preziorik berrikusiko kontratu honetan, baina bai aurreko pasartean jasotakoari jarraituz hiruko erregela aplikatuta ume eta egun kopurua kontuan hartuta egokitu.

Adjudikazio-hartzailea BEZa ordaintzetik salbuetsita baldin badago, behar bezala ziurtatu beharko du eta zenbateko hori ez da eskaintzan sartuko.

## **5.- FINANTZAKETA**

Aurrekontu-gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du kontratu honen eragina izan dezaketen hurrengo ekitaldi ekonomikoetako aurrekontuetan kontratua finantzatzeko behar adina kreditu erreserbatzeko.

## **6.- BERMEAK**

Ez da behin-behineko bermerik ezarriko.

Behin betiko fidantza, berriz, BEZik gabeko adjudikazio-prezioaren % 5aren parekoa izango da eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluan aurreikusitako bideetatik edozein erabilita ezarri ahal izango da.

Berme-epea amaitzen denean, adjudikazio-hartzaileari bermea itzuliko zaio, osorik edo – bidezkoa bada– zati batean, baldin eta kontratuko betebeharrak guztiak beteta baditu. Itzulketa hori Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan ezarritakoari jarraituz egingo da.

## **7.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK.**

### 7.1.- Helburu hauek bete beharko dituzte:

- Gozamen eta dibertsiorako esparru ludikoa eskaintzea.
  - Udalekua erakargarria izatea haurrentzat.
  - Jolasteko aukerak eskaini eta esperientzia berriak izateko aukerak eman.
  - Haurrek beraien ingurua ezagutu dezatela.
- Partaideen autonomia pertsonala ahalbidetuko duen esparrua eskaintzea.
  - Haurrei erabakiak hartzeko aukera ematea.
  - Haurrei egitasmoaren partaide direla sentiaraztea.
  - Herriko haurren arteko harremanak sortu eta sendotzea.
  - Herri bizitzan parte hartzeko bideak eskainiz herri sentimendua handitzea.
- Elkarbizitza eta lankidetzaren espazio bat eskaintzea neska-mutikoei, era aske batean eta bere interesen arabera, harreman, formazio eta dibertsiorako esparru guztietan parte hartu ahal dezaten.
  - Aukera berdintasuna lortzea.
  - Eredu estereotipatuak gainditzea.

- Haurren elkarren arteko lankidetzaren handitzea.
- Jardueraren guztietan, bai neska, bai mutilen parte hartzea lortzea.
- Aniztasunaren eskubidea eta gizabanako desberdintasunen kontzientzia hartzea.
- Bestearen eboluzio erritmoaren onarpena lortzea.

•Euskara sustatzea:

- Udalekueetan euskaraz bizitzea eta/edo euskaraz bizitzen ahalegintzea.
- Euskal kulturara hurbilketa bideratzea.

•Familia eta lanaren arteko kontziliazioan laguntzea.

•Herri bizitza sustatzea eta herriko elkarte eta eragileekin elkarlana bideratzea haurren herriko partaidetza sustatzeko.

•Partaide guztien segurtasuna uneoro bermatzea.

7.2.- Beste betebeharrak:

- Zerbitzua eman behar duten pertsonen ondorengo eskakizun hauek bete beharko dituzte:

- Eskola graduatua, Lanbide Hezkuntza 1 edo pareko titularen jabe izatea.
- Aisialdiko begirale titulua izatea: behar beste jende ez badago begirale tituluarekin, udalarekin adostuko da tituludunen portzentaia.
- Sexu-delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa izatea.
- Hizkuntzari dagokionean 8. puntuaren jasotakoa betetzea.

- Begiraleei urte bakoitzean zerbitzua ematen hasi baino lehen formazio-saio bi eskaini beharko zaizkie gutxienez: bata titulurik ez dutenentzako espezifikoa izango da, eta bestea begirale guztiei zuzendutakoa.

-Begirale titulurik ez dutenei gutxienez 4 orduko formazio saioa eskaini beharko zaie.

-Begirale guztiei gutxienez 4 orduko formazio saioa eskaini beharko zaie. Formazio saio hauetan, "hezkidetzaren"-ren gaia eta jolas ez sexistena derrigorrezko bloke moduan sartu beharko zaie.

- Haur Hezkuntzako haurrekin dauden begiraleek gehienez 10 haur izango dituzte beraien ardurapean, HH2-ko haurrekin dauden begiraleek aldiz gehienez 8 haur izango dituzte beraien ardurapean.

- Lehen Hezkuntzakoekin daudenak 12 haur izango dituzte beraien ardurapean.

- Programatutakoa ezintasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten haurrei egokitu behar zaie. Beharrezko kasuetan haurrentzako begirale espezifikoa jarri beharko da.

- Beharrezkoak diren langileak kontratatzea eta Gizarte Segurantzaren alta ematea.

- Gai laboral, fiskal eta Gizarte Segurantzaren aldetik indarrean dauden xedapenak bete behar dira.

- Udalekuen izen-ematea Angiozarren eta Osintxun ere egingo da; auzo hauetan, gutxienez 12 laguneko taldea sortuz gero, udalekuak antolatuko dira.

- Udalekuak 10:00etatik 13:00etara bitartean eskainiko dira egunero astelehenetik ostiralera, jaiegunetan izan ezik.
- Udalekuak aurrera eramateko materialaren erosketa (erosketaren ardura hartu eta ordaindu).
- Udalak emandako jarraibideak betetzea.
- Udalekuak baino lehen, gurasoei zuzendutako bilera informatiboa antolatuko da, udalekuen programazioaren berri emango zaie bertan gurasoei (datak, irteerak, begiraleak eta taldeak...). Bergaran gutxienez bilera bat egingo da, eta Osintxun eta Angiozarren, taldea osatzen bada, beste bana.
- Utzi diren lokal eta materialak egoera onean eduki behar dira, ondo zaintzeko bitartekoak erabiliz. Ondo zaintzeaz ulertzen da, beste batzuen artean, eguneroko garbiketa, zainketa eta lokalaren apainketa. Garbiketarako materiala adjudikazio-hartzailearen gain joango da.
- Gutxienez 240.000 euroko kapitala duen erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu beharko du adjudikazio-hartzaileak. Aseguru honek hirugarrenei (Bergarako Udala barne) egindako kalteak estaliko ditu.
- Zerbitzu honetan erabili beharreko dokumentu guztietan Bergarako Udalaren logoa eta "Bergarako Udala" testua azaldu beharko da.
- Gutxienez aisialdiko zuzendari titulua duen pertsona baten oniritziarekin Udalekuen egitaraua aurkeztea udalekuak hasi baino hilabete lehenago. Programazio hori udaleko Gazteria Zerbitzuarekin batera adostu eta osatuko da.
- Gutxienez udalekuak hasi baino hilabete lehenago eta udalekuak bukatu arte udalekuen koordintzaile orokorra (aisialdiko zuzendari titulua izango duena), HHko koordinatzailea eta LHko koordinatzailea lanean hastea, baita hauen berri udalari ematea ere.
- Udalekuek irauten duten bitartean eguneroko ebaluaketa eta koordinazio lana egitea.
- Udalekuak bukatutakoan (beranduen irailaren 30ean), udalekuen balorazioa aurkeztea, baita hurrengo urteetarako hobetzeko proposamenak ere. Balorazioarekin batera gastuen likidazioa aurkeztu beharko da. Gurasoen eta haurren balorazioa jaso beharko da eta balorazio orokorrarekin batera udalean aurkeztu beharko da.
- Dokumentazio, publizitate, irudi edo material orotan, ez da hizkera sexista erabiliko, ezta emakumeen diskriminazio edo estereotipo sexistarik duen irudirik ere. Halaber, balio hauek sustatu behar dira emakumeen irudiari dagokionez: berdintasuna, ordezkaritza orekatua, aniztasuna, baterako erantzukizuna eta genero-rolen eta -identitateen aniztasuna.

## **8.- HIZKUNTZA IRIZPIDEAK**

### Hizkuntza gaitasuna

Bergarako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana izango duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek Bergarako Udalak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila egiaztatu beharko dute jardueran parte hartuko duten begiraleek.

Kontratua adjudikatu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonak badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

Era berean, enpresa kontratatu eta geroago zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.

Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko honako bi bideak erabili ahal izango dira:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonak eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea edo,
2. Bergarako Udalak erabakitako froga egitea.

### Hizkuntzazko arau eta irizpideak

Kontratazio honen bidez bideratuko diren jardueretan eta herritarrekiko komunikazioetan euskarazko harremanak sustatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, beti ere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuaz.

Gazteria teknikariak edo Euskara Zerbitzuak emango dizkiote enpresa adjudikazio-hartzaileari irizpideon gaineko azalpen zehatzak.

Enpresa adjudikazio-hartzailearen eta Udalaren arteko harreman administratiboak euskaraz bideratuko dira.

### **9.- UDALAREN BETEBEHARRAK.**

- Matrikula kobratzea: udalak udaleku irekietan parte hartzen duen ume bakoitzeko matrikula kobratuko du. Kopuruak “zerbitzuak eman edo udal aginpideko jarduera administratiboak burutzeagatiko prezio publikoen ordenantza arautzailean” udalak urtero onartutakoak izango dira.

Kontratua luzatuko balitz, 2020an kobratuko diren matrikulak urte horretako ordenantza fiskalean zehaztutakoak izango dira

- Ahal den guztietan adjudikazio-hartzaileari laguntzea.

- Udaleku irekiak aurrera eramateko azpiegitura adjudikazio-hartzailearen esku utziko du.

- Enpresari prezioa ordaintzea. Horretarako, faktura aurkeztu beharko du eta, fakturarekin batera, langileei hileko soldata ordaindu izanaren agiria eta baita TC1 eta TC2-a eta TC horiei dagokiona ordaindu izanaren agiria. Autonomoa balitz autonomo bezala aurreko hileko kuota Gizarte Segurantzari ordaindu izanaren agiria.

- Udalekuen difusioaren ardura hartzea.

## **II. KONTRATATZEKO PROZEDURA**

## **10.- ADJUDIKAZIORAKO KONTUAN IZANGO DIREN ZIRKUNSTANTZIAK.**

Administrazioak ahalmen osoa izango du kontratua bere iritzian abantailarik onenak eskaintzen dituen proposamenari adjudikatzeko, eta horretarako eskaintza ekonomikoak ez du zertan erabakigarria izan. Era berean, lizitazioa hutsik utzi ahal izango du.

Aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Aurkeztutako proiektua: 40 puntura arte. Kontuan izango dira:

- Talde guztiek egun osoko ekintzaren bat izatea (irteera...) eta hauen zehaztasun maila (gehienez 5 puntu).
- Begirale / koordinatzaileen arteko koordinaziorako planteamendua (gehienez 5 puntu).
- Programazioa bera (gehienez 10 puntu).
- Begiraleei eskaini beharreko formazioaren zehaztapenak (gehienez 5 puntu).
- Eguneroko ebaluaziorako tresnak, eta ebaluazio orokorrerako ildoak (gehienez 5 puntu).
- Lan metodologia: noiz eta nola gauzatuko den programazioa, begiraleen partehartzea egitarauaren diseinuan, etab...(gehienez 5 puntu).
- Udalekuak hasi eta irauten duten bitartean familiekin komunikazioa nola gauzatuko den (gehienez 5 puntu).

-Eskaintza ekonomikoa: 10 puntura arte.

10 puntu emango zaizkio prezio merkeena eskaintzen duen proposamenari eta gainontzeko proposamenen puntuazioa formula honetatik aterako da: prezio merkeena duen eskaintzaren eta baloratzen den lizitatuzailearen eskaintzaren arteko zatidura bider irizpideari aplikatu dakizkiokeen puntuen kopuru osoa, ateratzen den emaitza. Hau da:

$$LP = ET/LE \times 10$$

LP: lizitatuzailearen puntuazioa

ET: eskaintzarik txikiena

LE: lizitatuzailearen eskaintza

Eskaintza ekonomikoak baloratzeko prezioak BEZik gabe hartuko dira kontuan.

## **11.- KONTRATATZEKO GAITASUNA**

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide honetan, baldin eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta tekniko edo profesionala egiaztatzen badute, eta Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 71. artikuluan zehazten diren kontratatzeke debekuren bat ere ez badute. Kaudimena egiaztatzeke eta ebaluatzeke bideak 14. baldintzan ezarritakoak izango dira.

Halaber, nork bere kabuz edo baimendutako ordezkariaren bitartez jardun ahal izango dute. Ordezkarien kasuan berariaz emandako ahalorde askietsia erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten izenean horko kide bat datorrenean, agiri bidez justifikatu beharko du ahalmena

duela horretarako. Bi kasuetan ere, kontratatze gaitasunik eza dakarten arrazoiak, gorago aipatutakoak, ordezkariari ere aplikatu behar zaizkio.

Gainera, lizitatuzaileek helburu izan behar dute kontratu honen helburuarekin zuzeneko lotura duten ekintzak egitea, eta kontratua behar bezala betetzeko nahiko elementu pertsonal eta material daukan antolaketa talde bat eduki behar dute.

## **12.- PROPOSAMENAK AURKEZTEA.**

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Bergarako Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira 15 egun naturaleko epean –iragarkia Bergarako Udaleko Kontratatuzailearen Profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita–, astelehenetik ostiralera, goizez, 09:00etatik 13:00etara bitartean.

Epe-bukaerako eguna larunbat, igande edo jai suertatuz gero, hurrengo laneguneko 13:00ak arte luzatuta gelditzen da.

Proposamenak, era alternatiboan, korreo ere aurkeztu ahal izango dira edo baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein bide ere erabiliz.

Proposamenak posta bidez bidaltzen badira, enpresariak egiaztatu egin beharko du zein egunetan sartu duen bidalketa postetxean eta, horrez gain, egun berean fax bidez (943 77 91 63 zenbakian) Kontratazio Organoari jakinarazi beharko dio eskaintza bidali duela; fax-ean honako datuak adieraziko dira: espediente-zenbakia, kontratuaren xedearren izendapen osoa, eta lizitatuzailearen izena.

Fax hori jaso izanaren egiaztapena Udal Idazkariaren diligenziaren bidez egingo da. Lizitazio-iragarkian zehaztutako epea bukatzeko eguna eta gero Kontratazio Organoak jasotako proposamenik ez da onartuko bi baldintza horiek betetzen ez badira. Dena den, epe-amaierako datatik hurrengo bost egunetan ez bada dokumentaziorik jaso, jada ez da onartuko.

Ezkutukoak izango dira proposamenak, eta horiek aurkezteak esan nahi du baldintzarik gabe onartzen duela lizitatuzaileak plegu honetan aurreikusitako guztia.

Lizitatuzaileek ezin izango dute aurkeztu aldagairik edo alternatibarik, baina bai aurkeztu ditzakete bidezkotzat jotako hobekuntzak.

Proposamenak kartazal itxi batean aurkeztuko dituzte ondorengo idazpen honekin: "UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAN PARTE HARTZEKO PROPOSAMENA" Kartazal horren barruan A, B eta C kartazalak sartuko dira.

"A" kartazalean, "KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA" izenburupean, ondorengo dokumentu hauek sartuko dira:

- a) Europako Kontratazio Dokumentu Bakarra (DEUC). DEUCen formulario normalizatua helbide elektronikoa honetan eskura daiteke: <https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es>.

Halaber, udalaren Kontratatuzailearen Profilean XML formatua eskura daiteke, lizitatuzaileek DEUC betetzeko inportatu ahal izateko.

- b) Aldi Baterako Enpresaburuen Elkarte bat eratzeko konpromisoa (ABEE), hala dagokionean. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera joaten badira ABEE moduan

eratzeko konpromisoarekin, deklarazio bat gehitu beharko da adieraziz hori izenpetzen duten enpresaburuen izenak eta inguruabarrak, bakoitzaren partaidetza zein den, eta, esleipendun ateraz gero, konpromisoa hartzen dutela formalki Aldi Baterako Elkarte bat eratzeko. Agiri hori elkarte osatzen duten enpresa guztien ordezkariak sinatu beharko dute. Horrelakoetan, enpresa bakoitzak bere DEUC aurkeztu beharko du.

- c) Atzerriko enpresen deklarazioa. Atzerriko enpresek deklarazio bat aurkeztu beharko dute adieraziz Espainiako arlo guztietako epaitegi edo auzitegien menpe jarriko direla kontratuarekin zuzen edo zeharka zerikusia duten gorabehera guztietarako, eta, hala dagokionean, uko egiten diotela lizitatzailari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari.
- d) Posta elektronikoko helbide bat errekerimendua edo eskaerak egiteko, datuak argitzeko, dokumentazio osagarria emateko edo akats konpongarriak daudela jakinarazteko.

Kontratazio Mahaiak edozein unetan justifikazio dokumentala eskatu ahal izango die lizitatzailari, beren erantzukizunpean baldintzak betetzen dituztela adierazi dutena egiaztatzeko.

Lizitatzailak gehienez ere hiru egun balioduneko epean aurkeztu beharko du eskatu zaion dokumentazioa –errekerimendua jasotzen denetik kontaktzen hasita–. Errekerimendua aipatutako epearen barruan betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzailak eskaintza erretiratu egin duela, eta prozeduratik kanporatua izango da.

"B" gutunazalean, PROIEKTUA aurkeztu beharko da, eta bertan zehaztuko dira proposamen metodologikoa eta antolakuntza, baliabide materialak eta pertsonalak, ekintzak (herrian egingo direnak, herritik kanpo egingo direnak), lanerako plana, koordinaziorako planteamendua, begiraleei eskainiko zaien formakuntzaren zehaztapena, familiekin komunikatzeko bideak, ebaluaketa-sistema, etab...

Proiektuak udalekuetako adin tarte guztietarako bi astetarako programazioa izan beharko du.

Inoiz ez da sartuko gutunazal honetan proposamen ekonomikoa. Sartuz gero, lizitatzaila prozedura honetatik kanpo geratuko da, eta ez da irekiko "C" kartazala.

"C" gutunazalean, proposamen ekonomikoa sartuko da, ondorengo ereduari jarraituz:

" Izen-abizenak: -----

Helbidea: -----

Posta kodea: -----

Herria: -----

NAN zenbakia: -----

Gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoa izanik, (aukeratu azpikoa)



- Neure izenean
- Jarraian datorrenaren ordezkartzan

Ordezkatuaren datuak:

Izena: -----

Helbidea: -----

Posta kodea: -----

Herria: -----

IFZ: -----

UDALEKU IREKIEN ZERBITZUA emateko Udalak deitu duen prozedura irekiaren baldintzen berri izanda, horiek betetzeko konpromisoa hartzen dut, baita baldintza juridiko eta ekonomiko-administratiboak eta adjudikazio-erabakiaren ondorioz sortzen diren gainerakoak betetzeko, eta ezartzen zaion legezko araudia ere betetzeko .....eurotan gehi... euro BEZari dagozkionak urteko. Hau da,.....eurotan (BEZ barne)."

Bergaran, 2019ko.....

Sinadura

Ereduaren arabera idatzi ez den proposamen ekonomiko bakar bat ere ez da onartuko.

Inoiz ez da sartuko kartazal honetan "B" kartazalean sartu beharreko dokumentazioa. Dokumentu horietatik edozein sartuz gero "C" kartazalean, ez dira baloratuko agiri honek.

Lizitatuak bakoitzak proposamen bakar bat aurkeztu ahal izango du. Norbaitek bat baino gehiago aurkeztuko balu, denak atzera botako dira.

### **13. KONTRATAZIO-MAHAIA**

Kontratazio-mahaia honako kide hauek osatuko dute:

#### **LEHENDAKARIA:**

- Bergarako udaleko alkate-lehendakaria edo berak eskuordetzen duena.

#### **BOKALAK:**

- Udaleko euskara, gazteria eta hezkuntza batzordeko batzordeburua edo berak eskuordetzen duena.
- Kontuhartzailea edo berak eskuordetzen duena.
- Udaleko idazkaria edo berak eskuordetzen duena.

#### **IDAZKARIA**

. Udalbatzakoa edo berak eskuordetzen duena.

Mahaiaren bileran parte hartu ahal izango dute, aholkularitza-eginkizunetarako, Mahaiak eskatzen dituen udaleko teknikari arduradun guztiek. Mahaiak, halaber, bidezko irizitako txosten tekniko guztiak ere eskatu ahal izango ditu.

#### **14. AGIRIAK KALIFIKATZEA ETA PROPOSAMENAK IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, honako hauek egingo dira:

##### **1. "A" KARTAZALA IREKITZEA ETA BARRUAN DARAMAN DOKUMENTAZIOA KALIFIKATZEA**

Eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta gero, Kontratazio Mahaiak A kartazala irekiko du, eta dokumentuak badaudela egiaztatuko du; bestela, konpontzeko izapidea egingo du.

Mahaiak, aurkeztutako agiriak kalifikatu ondoren eta, hala badagokio, antzemandako akatsak edo ez-eginak zuzendutakoan, zehaztuko du zein diren aukeraketa-irizpideei egokitzen zaizkien enpresak, eta berariaz adieraziko du nortzuk onartu dituen lizitazioan, nortzuk geratu diren kanpoan eta zergatik geratu diren kanpoan.

##### **2. "B" KARTAZALA JENDAURREAN IREKITZEA**

Proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo osteguneko 10:15ean egingo da B kartazala irekitzeko jendaurreko egintza, betiere lizitatzaileraren batek bere proposamena posta bidez igorri ez badu behintzat, zeren orduan B kartazalak aste bete beranduago ordu berean irekiko dira.

Hasierako deialdi honen mantentzea edo, kasu, aldaketak argitara emango dira kontratatzailearen profilean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)), baina jakinarazpenetarako egoki jotzen den beste edozein bide ere erabili ahal izango da.

Egintza horretan, berariazko adierazpena egingo da mahaiak proposamenei emandako kalifikazioari buruz, eta lizitaziora onartu direnak identifikatuko dira, baita baztertu direnak ere, eta, kasu horretan, baztertzeko arrazoiak azalduko dira.

##### **3. "C" KARTAZALA JENDAURREAN IREKITZEA**

"B" kartazala ireki eta barruko dokumentazioa baloratu ondoren, "C" kartazala irekiko da jendearen aurrean, Kontratatzaileraren Profilean ([www.bergara.eus](http://www.bergara.eus)) adierazitako egun eta orduan.

"C" kartazala ireki baino lehen, eskaintza bakoitzean balio-irizpide baten menpe dauden irizpideei eman zaien balorazioa jakinaraziko da.

##### **4. ESKAINTZEN SAILKAPENA**

Behin irizpide guztiak baloratu ondoren, aurkeztutako proposamenak garrantziaren arabera (handienekotik txikienera) sailkatuko ditu Mahaiak, eta kontratua esleitzeko proposamena bideratuko dio esleipena egingo duen kontratazio-organora.

##### **5. LEHEN SAILKATUARI ERREKERIMENDUA EGITEA**

Lehenagoko ekintzak egin eta gero, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerari Alkatetzatik eskatuko zaio ondoren adierazten den dokumentazioa entregatu dezala hamar laneguneko epean –errekerimendua jaso duen egunaren biharamunetik hasita–:

- a) Lizitatzaillearen edo ordezkariaren Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia. Gainera, beste pertsona edo erakunde baten ordezkartzan jardunez gero, horretarako behar besteko ahalordetze-agiria.
- b) Lizitatzaillea pertsona juridikoa bada: eratze- edo aldaketa-eskritura hala dagokionean, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribaturik, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, inskribapena aplikaziozkoa zaion merkataritza legeriarekin bat etorritz eskatu ahal denean. Hala ez bada, eraketaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren eskritura edo agiria aurkeztuko du, jarduteko gaitasuna duela frogatzeko. Agiri hori erregistro ofizial egokian inskribatuta egongo da, hala behar denean, eta bertan agertuko dira lehiatzailearen jarduera zuzentzen duten arauak.

Aurreko a) eta b) letretan adierazitako baldintzak egiaztatzeko, aurkeztu ahalko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratista eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialeko ziurtagiria edo Espainiako Lizitatzaille eta Enpresa Saikatuaren Erregistro Ofizialeko ziurtagiria. Ziurtagiri horri gehitu beharko zaio lizitatzaillearen erantzukizunpeko aitortpena, non adieraziko den ziurtagiri horretan adierazten diren inguruabarrak ez direla aldatu.

- c) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko dokumentuak.  
Kaudimen hori egiaztatzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak 87. artikuluan jasotako edozein bide erabili ahal izango da.
- d) Gaitasun teknikoa egiaztatzeko dokumentuak:  
Azken bost urteetan eskainitako zerbitzu edo lan nagusien zerrenda aurkeztu beharko da; zerrenda honetan zenbatekoa, datak eta jasotzailea, publikoa zein pribatua, baita hauen ziurtagiriak ere aurkeztuko dira. Ziurtagiri hauek Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 90 artikuluan jasotako ezaugarriak izango dituzte.  
Azken hiru urteetan 12 urtez azpiko umeentzako ludotekaren edo udaleku ireki zein itxien zerbitzu bat antolatu eta eman dutela egiaztatu beharko dute; bestela kaudimena egiaztatu gabe gelditzen dela ulertuko da.
- e) Ekonomi Jardueren gaineko Zergan, kontratu-xedeari dagokion epigrafean hain zuzen ere, alta emanda egotearen egiaztagiria, uneko ekitaldian bertan hartua badu, edo EJZren azken ordainagiria, gainerako kasuetan; eta kasu bietan ere, zerga horren matrikulan baja eman ez izanari buruzko erantzukizun-adierazpena aurkeztuko du.
- f) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela frogatzen duten agiriak aurkeztea, edo kontratazio-organoari egoera hori horrela dela ziurtatzeko modu zuzenean lortzeko baimena ematea.
- g) Behin betiko bermea eratu dela justifikatzeko dokumentazioa.
- h) Udal honekiko betebeharretan egunean dagoela egiaztatzen duen agiriak.
- i) Plegu honetako 15. klausulan aipatzen den koordinatzailearen datuak.
- j) Erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu izanaren egiaztagiria eta, horrekin batera, aseguruaren berritzeko edo luzatzeko konpromisoa agertu beharko da, kontratua gauzatzen den bitartean estaldurari eutsi egingo zaiola bermatzeko, baldintza teknikoen pleguan aipatutakoari jarraituz.

Adierazitako epe horretan errekerimendua zuzen bete ezean, lizitatuzaileak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da, eta hurrengo lizitatuzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera, betiere eskaintzen sailkapenaren hurrenkerari jarraituz.

### **III. KONTRATUA GAUZATZEA**

#### **15. KONTRATUA GAUZATZEA**

Kontratua beteko da zurrun eta zorrotz jarraituta baldintza ekonomiko-administratiboen pleguak diosenari, eta, edozein kasutan ere, udal ordezkariak, kontratistari, agiri horiek diotena burutzeko edo interpretatzeko orduan idatziz emandako jarraibideei.

Kontratistak izango du egindako lanen eta emandako prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna; eta baita kontratua betetzerakoan egiten dituen hutsegite eta akatsek, erabiltzen dituen metodo ezegokiek edo ateratzen dituen konklusio okerrekin Administrazioarentzat edo beste norbaitentzat izan ditzaketan ondorioen erantzukizuna ere. Kontratistak berari egotz dakizkiokeen ekintzengatik hirugarrenei egiten zaizkien kalteen kalte-ordainak ordainduko ditu.

Kontratistak bete egin beharko ditu kontratu honen xede diren zerbitzuak emateko une bakoitzean indarrean dauden arau guztiak.

Kontratu-hartzailea derrigortuta dago kontratua burutzeko epea betetzera; berandutzak ez du eskatzen Udalak aurretik ohartarazi beharrik.

Kontratista, prestazioa emateko, derrigortuta dago kontratua zuzen betetzeko beharrezkoak diren bitarteko laguntzaile guztiak eta ekipoa jartzera, kontratuan bertan hitzartutako epeetan.

Kontratu hau burutuko duten langileei dagokienez, enpresa kontratistak bere gain hartzen du edozein enpresabururi dagokion zuzendaritza-botereaz baliatzeko obligazioa. Bereziki, ondoko betebeharrak hartuko ditu bere gain: ordainsariak negoziatzea eta ordaintzea; baimenak, lizentziak eta opor-egunak ematea; lan-arriskuen prebentzio alorrean legez dauden betebeharrak betetzea; diziplina-zehapenak ezartzea –hala egitea dagokionean–; Gizarte Segurantzaren alorreko obligazioak betetzea –kotizazioen ordainketa eta prestazio-ordainketa barne–; eta baita enplegatua eta enplegatzailearen arteko lan-kontratutik sortzen diren gainontzeko eskubide eta obligazio guztiak ere.

Enpresa kontratistak, gutxienez, koordinatzaile tekniko bat edo arduradun bat izendatu beharko du –bere plantillan integratua- eta, beste batzuen artean, obligazio hauek izango ditu:

A.- Kontratuarekin zerikusia duten gauza guztietarako kontratistaren pertsonalak Administrazioarekin egin behar duen edozein komunikazio jaso eta emateko orduan, beti izango da koordinatzailearen, teknikariaren edo horretarako izendatu den solaskidearen bidez.

B.- Enpresaren lan-arauak betetzen direla kontrolatzea, batik bat pertsonala lanlekura joan behar denean edo oporrak hartzen dituenean; kontratatutako zerbitzuaren eskaintza ez nahasarazteko.

C.- Kontratua egitera atxiki diren enplegatuek kontratuari atxikita segitzen ez dutenean, Administrazioari horren berri eman behar zaio, bereziki haiek zeuzkaten lan-bitartekoak modu egokiagoan kudeatu ahal izateko.

Enpresa kontratisten langileek edo, kudeaketa-mandatu baten ondoren, bere zerbitzuak udaleko lantokietan edo haren erakunde publikoetan eskaintzen dituenek ezingo dute zerbitzu hauetarako sarbiderik izan:

- a) Prestakuntza-ikastaroak –lan arriskuen prebentzio-alorrean derrigorrez bete beharrekoak izan ezik–.
- b) Erakundearen posta elektronikoa. Posta elektronikoko konturen bat izendatu behar bazaie, posta elektronikoaren helbidean garbi utzi behar da kanpoko pertsonala dela.
- c) Enplegatu publikoak sartzeko kontrol-txartelak. Hala bada kasua, sartzeko baimen berezi bat emango zaie. Instalazioetara sartzeko kontrolak inondik inora ere ez du esan nahi kontratistaren ordutegiaren kontrola egiten denik.

Hitzartutakoa burutzeari dagokionez, kontratuak duen termino horietako edozein ez ezagutzeak, kontratuaren zati diren dokumentu erantsiak ez ezagutzeak edo Administrazioak onartu dituen mota guztietako Baldintzak edo arauak, jarraibideak edo aginduak ez ezagutzeak, ez du salbuesten kontratista kontratua betetzeko duen bere obligazio horretatik.

Kontratu-hartzailearen arriskuz eta zoriz egingo da kontratua.

Kontratua Udalaren zuzendaritzaren, ikuskapenaren eta kontrolaren pean burutuko da, eta honek idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratu-hartzaileari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

## **16.- KONTRATISTAREN LANeko BETEBEHARRAK**

Kontratu-hartzaileak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienezaren arloetan indarrean dauden xedapenak bete behar ditu. Eta Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira. Era berean, behartuta dago honako hauek ere betetzera: azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua –Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartertzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartu zuena–; martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirakoa–; azaroaren 8ko 31/1995 Legea –Lan Arriskuen Prebentziolari buruzkoa– eta Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua –urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa–; eta era berean, kontratua gauzatzen den bitartean promulgatuko daitezkeen araudiak.

## **17.- KONTRATUA GAUZATZEKO BALDINTZA BEREZIAK**

Kontratatik zein azpikontratatik kontratua gauzatzeko baldintza berezi hauek bete beharko dituzte:

Sozialak: Kontratu honek bete egin beharko ditu indarrean dauden lege-, erregelamendu- eta hitzarmen-xedapen guztiak, lan-arlokoak, gizarte-segurantzakoak eta laneko segurtasun eta osasunari buruzkoak.

Kontratua gauzatu bitartean, kontratatik hitzarmen kolektibo aplikagarrian jasotzen den lansaria ordaindu beharko du, langileari dagokion kategoria profesionalaren arabera, eta ordaindu beharreko lansaria inola ere ez da hura baino txikiagoa izango.

Baldintza hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da.

## **18.- BAIMEN, LIZENTZIA ETA AUTORIZAZIOEN KUDEAKETARI BURUZKO BETEBEHARRAK**

Kontratatik zerbitzua hasi eta gauzatzeko beharrezkoak diren eta ezein erakunde publiko zein pribaturen arauetan xedatuta dauden baimen, lizentzia eta autorizazioak kudeatzeko betebeharra izango du, eta Administrazioari horretarako behar dituen dokumentuak eskatuko dizkio.

## **19- SEGURTASUNA ETA OSASUNA**

Kontratatik, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen arloan segurtasunaren eta osasunaren erantzulea den heinean, arau juridiko eta tekniko aplikagarriak beteko ditu.

Bergarako Udalak eskubidea izango du kontratua indarrean dagoen bitartean prebentzioaren arloan egokitzen jotzen duen dokumentazioa eskatzeko.

## **20. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE**

Kontratatikaren ardura izango da zerbitzua burutzearen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

## **21. KONTRATUA ALDATZEA**

a) Baldintza-orrietan aurreikusitako aldaketak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 204. artikulua).

Zerbitzuez gozatzeko eskubidea duten erabiltzaileek zerbitzu-eskaera handiagoa egiten badute aldatu ahal izango da kontratua.

Aldaketa horien ondorioz, pleguan aurreikusitako urteko gehieneko gastua, gehien jota, % 20an gehitu daiteke. Portzentaje hori kontratuaren hasierako aldiari nahiz kontratuaren luzapenari ezarriko litzaioke, luzapenik balego.

Onartzeko prozedura honakoa izango da: Kontratuaren Zuzendariak egindako proposamen batekin emango zaio hasiera aldaketa horiek onartzeko prozedurari. Kontratazio-organoak aldaketari onespina eman diezaion, aurretik, kontratistari hiru laneguneko entzunaldia eman behar zaio eta legokeen gastuaren fiskalizazioa egin behar da. Aldaketa onartu ondoren, ebazpena kontratistari jakinaraziko zaio.

Aldaketa horiek derrigorrezkoak izango dira kontratistarentzat.

b) Baldintza-orrietan aurreikusi ez diren aldaketak (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. artikulua).

Baldintza-orrietan aurreikusi ez diren aldaketak bakarrik egin ahal izango dira baldin eta 205. artikuluan aipatutako inguruabarren bat gertatzen dela behar bezala justifikatzen bada.

## **22. KONTRATUAREN LAGAPENA (ZESIOA) ETA AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratu honetatik eratorritako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango dizkio adjudikazio-hartzaileak baldin eta betetzen badira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 214. artikuluan zehaztutako kasuak eta baldintzak.

Azpi-kontratazioa: Kontratu honetan ez da horrelakorik onartzen

## **23. HARRERA ETA BERME-EPEA**

Kontratuaren xedea den prestazioa bukatu eta gehienez ere 30 eguneko epean, lanaren harrera-egintza formal eta positiboa egingo da; zerbitzuko teknikari arduradunak egingo du.

Gainera, 3 hilabeteko berme-epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean adierazitako ondorioetarako.

Berme-epe horretan kontratu-hartzailea izango da erantzulea, egiten diren lan edo zerbitzuetan akats edo ikusiezinezko akatsak agertzen badira.

Berme-epe horretan Administrazioak eragozpenik jartzen ez badu, epea amaitutakoan kontratu-hartzailearen erantzukizuna amaitutzat joko da.

## **24. DATU PERTSONALEN BABESA**

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarritik datozen eginbeharrak bete beharko ditu, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari eta horren garapen-araudiari buruz.

Kontratistak udalaren jarraibideen arabera tratatuko ditu kontratua dela-eta eskuratzen dituen datu pertsonal automatizatuak, eta ez ditu aplikatuko ez erabiliko bertan

agertzen den xedea ez den beste baterako, eta ez dizkie beste pertsona batzuei jakinaraziko, ezta kontserbatzeko ere.

Kontratuaren prestazioa amaitu ondoren, tratatutako datu pertsonalak udalari eman beharko zaizkio, baita tratatzeko moduko datu pertsonalak dituen edozein euskarri edo dokumentu ere.

Enpresa adjudikazio-hartzaileak, kontratuaren baldintzak urratuz, beste xede baterako bideratu, jakinarazi edo erabiltzen baditu datuak, orduan tratamenduaren erantzuleztat ere hartuko da, eta egin izan ditzakeen arau-hausteez erantzungo du.

Kontratu honen bidez ezagutu ditzaketen datuei buruz, enpresa kontratista eta bere langileak espresuki behartuta daude datu guztiak zeharo isilpean mantentzera (datu pertsonalak barne).

Halaber, Copyright-ari buruz, jabego intelektualari buruz eta sailkatutako edo hedapen mugatuko dokumentazioari buruz indarrean dauden arauak betetzera ere behartuta dago enpresa kontratista, betiere kontratuaren betebeharrengatik erabili behar duen dokumentazioarekiko.

## **25.- KONTRATISTAREN EZ-BETETZEAK ETA EZ-BETETZEENGATIK KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK**

Ez-betetzeak honakoak dira:

### **1.- Kontratua burutzeko epeak ez betetzea:**

Kontratatik, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu egin beharreko lanak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko penalizazioak ezartzea egunean 0,60 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.

### **2.- Prestazioen burutzapen partziala dela-eta**

Kontratatik, berari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuan ezarritako prestazioen exekuzio partziala betetzen ez badu, Administrazioak bi aukera ere izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo egun bakoitzeko penalizazioak ezartzea egunean 0,60 euroko proportzioan, kontratuaren prezioaren 1.000 euro bakoitzeko.

Atzerapenagatiko zigorren guztizko zenbatekoak kontratuaren prezioaren ehuneko 5aren multiploren bat jotzen duen bakoitzean, kontratazio-organoak aukera izango du kontratua bertan behera uzteko edo zigor gehiago ezarri eta burutzapenean aurrera egin dadila erabakitzeko.



### **3.- Beste ez-betetze batzuk (arinak, larriak eta oso larriak) eta penalizazioak:**

#### **a) Ez-betetze arinak.**

Arautegi orokorrak eta Baldintza Pleguak ezarritako betebeharrak ez betetzea, eta ez-betetze larria edo oso larria ez denean.

#### **b). Ez-betetze larriak.**

1. Udalak edota Baldintza Pleguan zerbitzua emateko moduari buruz agindutakoa hiru aldiz ez betetzea.
2. Osasun arauak ez betetzea, edo publikoarentzat egoera osasungaitz, arriskutsu edota kaltegarriak izan daitezkeenak gerta ez daitezen Alkatetzak emandako arauak ez betetzea.
3. Zerbitzuan Udalak ezarritako xehetasun-aldaketak ez betetzea, betiere adjudikazio-hartzailearentzat gasturik suposatzen ez dutenean.
4. Ezarritako ordutegia ez betetzea.
5. Antzemandako akatsak zuzentzeko Udalak emandako aginduak ez betetzea.
6. Ez-betetze arin bat baino gehiago egitea 15 eguneko epearen barruan.

#### **c) Ez-betetze oso larriak.**

1. Zerbitzua, nabari-nabari, akatsekin eta irregulartasunez ematea, ezarritako baldintzak bete gabe.
2. Udalaren baimenik gabe zerbitzu osoa edo partzialki zeditzea, errentan jartzea edo eskualdatzea.
3. Zerbitzua ematen duten langileekiko betebeharrak laboralak eta Gizarte Segurantzakoak ez betetzea.
4. Dokumentazio faltsua aurkeztea.
5. Ez-betetze larri bat baino gehiago egitea.

#### **d) Penalizazioak**

3. puntu honetako a), b) eta c) ataletan araututako ez-betetzeek honako penalizazio hauek izan ditzakete:

- Ez-betetze arinak: 540 eurotik 721 eurora.
- Ez-betetze larriak: 722 eurotik 1.112 eurora.
- Ez-betetze oso larriak: 1.113 eurotik 2.000 eurora edo/eta kontratua etetea fidantza galduz.

Erabakia berehala betearaztekoa izango da; eta diru-kopuru horiek kobratzeko, kontratistari egin behar zaizkion ordainketetatik —ordainketa osotik zein zatikakoetatik— dagozkion kenketak egingo zaizkio, eta aipatutako ziurtagiri horietatik ezin bazaio kenketarik egin, ezarrita duen bermetik kenduko zaio.

Edozein kasutan ere, penalizazioak ezarri aurretik enpresa adjudikazio-hartzaileari entzunaldia emango zaio.

## **26. KONTRATUA BERTAN BEHERA LAGATZEKO ARRAZIOIAK**

Kontratua bertan behera uzteko arrazoiak hauek izango dira: plegu honetako aurreko puntuko c) atalean jasotakoez gain, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. eta 313. artikuluetan jasotakoak.

Kontratua adjudikazio-hartzaileari egotzi dakiokeen arrazoiren batengatik eteten bada, ezarritako behin betiko fidantza galduko du.

## **27. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK**

Administrazioari dagokio kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoaren Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

# **IV.- IZAERA, ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA**

## **28. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA**

Plegu honen arabera egingo den kontratuak izaera administratiboa izango du, eta bertan xedatzen ez den guztirako ondoko araei jarraitu beharko zaie:

- Toki Jaurbideko Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa; eta 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, apirilaren 18koa, Toki Jaurbidearen alorrean indarrean dauden xedapenen Testu Bateratua onartzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legea onartzen duena; eta lege horrek xedatzen duenaren aurka ez doazenean:
  - 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 Legea zati batean garatzen duena.
  - Administrazio Publikoaren Kontratuen Legeko Erregelamendu Orokorra, urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren bitartez onartua.
- Eta besterik ezean, zuzenbide administratiboko bestelako xedapenak, eta halakorik ezean, zuzenbide pribatukoak.

## **29. JURISDIKZIO ESKUDUNA**

Kontratutik sortzen diren auziak Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren menpe egongo dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitrajearen bidez konpondu daitezke, indarrean dagoen legerian zehaztutakoarekin bat etorritz.

# **PLIEGO DE CLÁUSULAS REGULADORAS DEL PROCEDIMIENTO ABIERTO PARA LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE COLONIAS ABIERTAS DE VERANO**

## **I- CONTENIDO DEL CONTRATO**

### **1.- OBJETO**

Este procedimiento abierto tiene por objeto la organización y gestión de las colonias abiertas de verano del 2019.

Las colonias abiertas de verano de 2019 tendrán lugar del 1 al 26 de julio (ambos inclusive). Se ha de tener en cuenta que el 25 de julio, al ser festivo, no habrá servicio de colonias de verano.

Este servicio estará dirigido a niñas y niños nacidos entre los años 2007 y 2016, es decir, que cumplan de 3 a 12 años durante el año natural.

La adjudicación se hará por procedimiento ordinario.

CPV: 920000000-1

### **2.- DURACIÓN DEL CONTRATO**

La duración del contrato será de un año, que podrá prorrogarse por otro año más con el acuerdo de ambas partes.

### **3.- VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO**

El valor estimado del contrato es de 182.000 euros (más 10% de IVA).

### **4.- PRECIO DEL CONTRATO**

Las familias podrán elegir la duración de las colonias: de tres semanas o de cuatro semanas.

La duración de tres semanas será del 1 al 19 de julio.

La de cuatro semanas, por su parte, del 1 al 26 de julio (teniendo en cuenta que el 25 de julio es festivo).

En base a los datos de 2018, en las colonias abiertas de verano en las primeras tres semanas se prevé la participación de 508 niñas y niños, y en la cuarta semana 288. Si se mantienen estas cifras, el precio de las colonias de verano será de 91.000 euros más 10 % de IVA. En caso de que varíe el número de participantes (más o menos niños/as), el precio se calculará aplicando una regla de tres.

Dentro del precio se entienden incluidos todos los gastos derivados de la prestación del servicio (salarios del personal necesario, cotizaciones a la Seguridad Social, costes de administración, dietas del personal, material no inventariable..., es decir, todos aquellos gastos que no son expresamente asumidos por el ayuntamiento en el presente pliego).

El precio podrá mejorarse a la baja.

Aunque se amplíe el contrato al año 2020, el ayuntamiento podrá decidir modificar la cantidad máxima de niñas/os participantes, así como el número de jornadas de las colonias abiertas. En estos casos, el precio también se ajustará aplicando una regla de tres.

En este contrato no habrá revisión de precio, aunque, tal y como se ha recogido en el párrafo anterior, se podrá adaptar el mismo aplicando una regla de tres en función del número de niñas/os y de jornadas.

En caso de que la entidad adjudicataria esté exenta de abonar el IVA, deberá justificarlo debidamente y ese importe no se incluirá en la oferta.

## **5.- FINANCIACIÓN**

El órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar el crédito necesario para la financiación de este contrato en los presupuestos de los futuros ejercicios económicos que resulten afectados.

## **6.- GARANTÍAS**

No procede la constitución de garantía provisional.

La fianza definitiva, que será equivalente al 5% del precio de adjudicación excluido el IVA, se podrá depositar de cualquiera de las formas contempladas en el artículo 108 de la Ley de Contratos del Sector Público.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por la empresa adjudicataria todas sus obligaciones contractuales. Dicha devolución se efectuará de conformidad con lo establecido en el artículo 111 de la Ley de Contratos del Sector Público.

## **7.- OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA**

### **7.1. Los objetivos a cumplir serán los siguientes:**

- Ofrecer un ámbito lúdico para el disfrute y la diversión.
  - Que la colonia abierta de verano sea atractiva para la niña o niño.
  - Ofrecer posibilidades para jugar y para vivir nuevas experiencias.
  - Que los niños y niñas conozcan su entorno.
- Ofrecer un ámbito que propicie la autonomía personal de sus participantes.
